

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ricardo Abad-ek Barcina Lehendakariari 1.000 maratoi jarraian korritzeko erronka berria aurkeztu dio

Lehendakariak harrera egin die, Tafallako kirolariari eta atletak laguntza ematen dion ANFASeko ordezkari bati

Jueves, 29 de marzo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok 41 urteko Ricardo Abad Martínez atleta tafallarrari harrera egin dio gaur goizean; kirolariak bere buruari jarri dion erronka berria aurkeztu dio: korrika egitea erreskadan 1.000 maratotara heldu arte bost kontinenteetan.

Kirolariarekin batera haren emazte Ivana eta ANFASeko ordezkariak (ezintasuna duten pertsonen aldeko Nafarroako Elkarte) izan dira; Abad-ek elkarte horri laguntza ematen dio. Zehazki, elkartetik Usúe Zulet lehendakaria eta Gerardo Posada gerentea bertaratu dira.

Duela sei urtetatik Ricardo Abad ultrafondoak praktikatzen hasi zenetik, errekor berriak jarri ditu jada. 2011ko urrian, Guinness liburuan sartu zen 365 maratoi korritu zituelako beste hainbat egunetan jarraian. Balentria hori lortu eta berehala, erronka 500 maratotara jarraian zabaldu zuen, eta hura ere arrakastarekin amaitu zuen iragan otsailaren 12an.

Abad-ek bere kirol-lorpenak baliatzen ditu ANFASerako dirua biltzeko; azken urtean 13.000 euro erdietsi du dohainei eta elastikoen salmentari esker.

Atletaren erronka berria da korrika egitea erreskadan 1.000 maratotara heldu arte bost kontinenteetan –jada 545 lasterketa bete ditu. Horretarako, mundu guztian antolatzen diren proba nagusietan izena emateko asmoa du. Lortzen badu, historiako kirol-balentria luzeena izango da, eta Ricardo Abad egun batean ere atsedetik hartu gabe kilometro gehien bete dituen pertsona bihurtuko da (42.000 Km).

Lehendakariari aipatu dionez, helburu berri hau lortzea (ANFASi ematen dion laguntzari eutsiko dio oraingoan ere), babesleak eskuratzearen arabera izango da, funtsean.



Lehendakaria Abad eta bere emaztearekin eta ANFASeko arduradunekin.